



GOBERNU BILERA

Prentsa-Txostena Gai nagusiak

CONSEJO DE GOBIERNO

Dossier de Prensa Asuntos destacados

Vitoria-Gasteiz, 2016ko azaroak 2

Vitoria-Gasteiz, 2 de noviembre de 2016

Herri Administrazioa eta Justizia

PREZIO PUBLIKOEN ARABERA ORDAIN DAITEZKEEN ZERBITZU ETA JARDUERAK EGUNERATU DITU JAURLARITZAK

- **Urrutiko Heziketako Euskal Institutuak eta Auzitegi Medikuntzako Euskal Institutuak eskaintzen dituzten zerbitzu berrien ondorioz eguneratu dira, eta auzitegi medikuek egindako peritu irizpenak eta txostenak ordainduko dira modu horretara.**

Gobernu Kontseiluak gaur onartu du *uztailaren 30eko 397/2013 Dekretuaren, prezio publikoen arabera ordain daitezkeen zerbitzu eta jarduerak zehazten dituenaren*, aldaketa. Dekretua eguneratu behar izan da Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak eta Herri Administrazio eta Justizia Sailak hemendik aurrera eskainiko dituzten hainbat zerbitzu sartu behar izan direlako. Zehazki, Urrutiko Heziketako Euskal Institutuak eta Auzitegi Medikuntzako Euskal Institutuak eskainiko dituzten zerbitzuak dira.

PREZIO PUBLIKOEN ARABERA ORDAINDUTAKO ZERBITZUAK

Dekretua aldatzen denean, honela geratuko da prezio publikoen arabera ordain daitezkeen zerbitzu eta jardueren zerrenda:

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura:

- ✓ Material didaktikoaren salmenta.
- ✓ Jantoki-zerbitzua.
- ✓ Egoitza-zerbitzua.
- ✓ Testu-liburuen eta material curricularren erabilera.
- ✓ Eibarko Hezkuntza Esparruak eman beharreko beste zerbitzu batzuk.
- ✓ Hizkuntza-eskola ofizialek, musika eta dantzako eskolek, arte plastiko eta diseinuko eskolek, arte aplikatu eta arte-lanbideetako eskolek, arte eszenikoetako eskolak, kirol-ikasketa eta lanbide-heziketako urrutiko zentroek eta **Urrutiko Heziketako Euskal Institutuak** emandako zerbitzuak.
- ✓ Azterketa-eskubideak.
- ✓ Euskal Herriko Unibertsitateko goi-mailako zerbitzu publikoak, titulu ofizialak lortzeko direnak.

Herri Administrazio eta Justizia Saila

- ✓ Paperezko eta euskarri elektronikoko argitalpenen salmenta eta bidalketa.
- ✓ **Auzitegi Medikuntzako Euskal Institutuak egindako peritu irizpenak eta txostenak**, eta zehazki dira trafiko-istripuetako lesioak baloratzeko aseguru-etxeek eskatuta egindako peritu txostenak.

Ogasuna eta Finantzak

MASTER AMAIERAKO LANAK BIDERATZEKO UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO / EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEAREN ETA EUSKAL ESTATISTIKA ERAKUNDEAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA

Gobernu Kontseiluak, gaur, UPV/EHUn eta Eustat-en arteko lankidetzahitzarmen bat onetsi du. Hitzarmena UPV/EHUn matrikulatutako ikasleek Unibertsitate Masterreko titulazioak eskuratzeko graduondoko ikasketen master-amaierako lanekin lotuta dago.

UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO / EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEAK eta Eustat EUSKAL ESTATISTIKA ERAKUNDEAK interes bera dute, UPV/EHUn eta Eustaten arteko erlazioak egituratuz, ikerketa bateratuaren garapena errazteko. Ikerketa bateratu hori master-amaierako lanak egiteko burutuko litzateke, ikerketa-jarduerak koordinatuz.

Eustatek unibertsitateko masterretan hartzen du parte –master-amaierako lanak bideratzen ditu–, ikasleek garatu beharreko master-amaierako lanak era egokian garatzeko behar den materiala eskaintzen du, eta master-amaierako lana garatzeko eskatzen zaizkion agiriak eskuratzen laguntzen du, betiere konfidentziasunari eta estatistika-sekretuari buruzko arauak errespetatuz.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura

EKIPAMENDU ZIENTIFIKOA ESKURATZEKO LAGUNTZAK

Gobernu Kontseiluak Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuaren proposamenez, 2017 urtean ekipamendu zientifikoa eskuratzeko laguntzak emateko deialdia egiten duen Agindua onartu du. Laguntza hauek Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sarea osatzen duten eragileei daude zuzenduak (UPV/EHU salbu). Deialdi honek 200.000 euroko diru-kopurua du.

Aipaturiko sareko kide dira, eta beraz, deialdiaren onuradun: Oinarrizko eta Bikaintasun Ikerketarako Zentroak; Unibertsitateetako zentro, departamentu, atal, institutu edo bestelako ikerketa unitateak, (UPV/EHUkoak izan ezik); Teknologia Zentroak; eta Ikerketarako Zentro Sektorialak.

Deialdi honen helburu nagusiak hauek dira: batetik, Euskadiko zientzia eta teknologia-ahalbideak areagotzea, eta bestetik, ikertzaile-taldeek arrakastaz eta gaitasunez parte hartu ahal izatea Europako ikerketa-espazioaren eraikuntzan.

Eskaerak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, Agindua EHAAn argitaratu eta hurrengo egunean hasita.

Ingurumena eta Lurralde Politika

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAK BAT EGIN DU OSTEGUNA INDARREAN JARRIKO DEN KLIMA ALDAKETAREN AURKAKO AKORDIOAREKIN

Klima Aldaketari buruzko **Parisko Akordioa** osteguna jarriko da indarrean, COP22 konbentzioaren klima-gailur berria hasi baino egun batzuk lehenago. Klima-aldaletari buruzko Nazio Batuen Esparru Konbentzioaren erabaki gorenak hartzen dituen organoaren “Aldeen Konferentzia” deritzona azaroaren 7tik 18ra egingo da Marrakexen (Maroko). Eusko Jaurlaritzak, Europa osoko beste gobernu batzuek bezalaxe, bat egin du hurrengo urteetan planetako tenperatura bi gradu zentigradu baino gehiago igo dadin saihesteko nazioarteko ekimenarekin.

Parisko Akordioaren babespean, herrialde guztiek erabaki dute klima-aldaletari aurre egitea eta jarduketak eta inbertsioak abian jartzea **etorkizun jasangarria, erresilientea eta karbono gutxikoa** lortzeko, tenperaturaren batez besteko igoera globala 2 °C-ren azpitik mantent dadin, guztien artean 1,5 °C-ra mugatzeko lan egiteko nazioarteko borondatearekin.

“Eusko Jaurlaritzak pozik agertu da nazioarteko akordio hori onartu delako. Izan ere, Europar Batasunak joan den urriaren 5ean berretsi zuen, Europako Parlamentuak onartu zuen egunean. Urtebete baino gutxiago behar izan da prozesua betetzeko. Horrek argi eta garbi adierazten du zenbaterainoko babesa izan duen akordioak maila globalean. Gailur hartan izan zen Euskal Autonomia Erkidegoa, lehendakari Iñigo Urkullu buru zuela, Europa eta mundu osoko herrialde eta estatuetako beste gobernu batzuekin batera”, gogorarazi du Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburu **Ana Oregik**.

KLIMA 2050 estrategia

Jasangarritasunaren Behatokiaren txostenaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoa laugarren tokian dago BPGaren unitateko sortutako isuriei dagokienez. Horrek esan nahi du estatuko ekonomia deskarbonatatuenerako bat dela.

Europar Batasunak klima-aldaletari buruz adierazitako konpromisoen norabideari jarraikiz, Eusko Jaurlaritzak **KLIMA 2025 estrategia** onartu zuen 2015. urte-amaieran, ingurumen-erronka horri aurre egiteko. Estrategia horretan finkatzen den helburua da 2030. urterako berotegi-efektuko gas-isurien % 40 murriztea eta 2050. urterako % 80 murriztea, 2005. urtea erreferentziazat hartuta.

Eusko Jaurlaritzak modu aktiboan parte hartzen du ingurumenarekin, jasangarritasunerako hezkuntzarekin, garraio jasangarriarekin, klima-aldaletarekin, habitatarekin eta lurralde-antolamenduarekin zerikusia duten **Europako eta nazioarteko hainbat forotan**. Oraingoz mila ehun udal,

eskualde eta erakundek baino gehiagok izenpetu dute ICLEI Jasangarritasunerako hiri eta eskualdeen erakundeak sustatutako “Euskal Adierazpena”. Aurten Bilbaon izenpetu den adierazpen horrek Aalborgeko Gutunari hartu dio txanda.

Ingurumena eta Lurralde Politika

GOBERNU KONTSEILUAK BAT EGIN DU “EUSKAL ADIERAZPENAREKIN”, EUROPA BIZIGARRI ETA INKLUSIBORAKO UDALERRI PRODUKTIBOAK, JASANGARRIAK ETA ERRESILIENTEAK SORTZEA HELBURU DUEN HIRI ETA HERRIENTZAKO BIDE-ORRIAREKIN

Eusko Jaurlaritzako Gobernu Kontseiluak bat egin du ofizialki “Euskal Adierazpenarekin”. ICLEI Jasangarritasunerako hiri eta eskualdeen erakundeak sustatutako hiri eta herrientzako bide-orri berri horrek “Europa bizigarri eta inklusiborako udalerrri produktiboak, jasangarriak eta erresilienteak” sortzea definitzen du.

2016ko maiatzaren 3an Eusko Jaurlaritzak adierazpen instituzionala egin zuen Parisen erdietsitako Klimari buruzko Akordioarekiko atxikipena eta konpromisoa azaltzeko, eta konpromisoa adierazi zuen beste herrialde eta eskualde batzuekin elkarlanean aritzeko nazioarteko lankidetzaren bitartez, adibidez, Garapen Jasangarriaren aldeko Eskualdeen Munduko Sarea (nrg4SD), Klima Aldaketaren Pirinioetako Behatokia (KAPB), The Climate Group (TCG) eta Jasangarritasunaren Aldeko Tokiko Gobernuen Sarea (ICLEI).

Euskal Adierazpenak, Bilbaon ia mila hiri, eskualde eta erakundek izenpetu duten akordioak, Aalborgeko Gutunari txanda hartu dio hiri-garapen jasangarria bermatzeko printzipioak eta ekimenak definitzeko paradigma berri gisa. Hala berretsi dute berriki, Nazio Batuek antolatuta, Quito (Ekuador) 2016ko urriaren 17tik 20ra egin den “Habitat III” nazioarteko konferentzian.

Azken hamarkadetan, Jasangarritasunerako Europako Hirien Gutuna izan da tokiko eta eskualdeko gobernuen jasangarritasun-politikak definitzeko erreferentzia. Aalborgen (Danimarka) 1994ko maiatzaren 27an egin zen Hiri Jasangarriari buruzko Europako Konferentzian 600 parte-hartzailek baino gehiagok onartu eta berretsi zuten.

Aalborgeko Gutuna esaten dioten dokumentu hori hamarkada bat beranduago eguneratu zuten aipatutako konferentziaren edizio berri batean: Aalborg +10. Dokumentua sinatu zuten hiriek eta lurralde-unitateek konpromisoa hartu zuten Nazio Batuen Agenda 21en tokiko ekimenak bultzatzeko eta Europako hiri eta eskualdeen garapen jasangarriko programak garatzeko.

2014ko iraileko Nazio Batuen Klimari buruzko Gailurrean, Nazio Batuen idazkari nagusiak eta Hirietarako eta Klima Aldaketarako mandatari bereziak Global Compact of Mayors (klima-aldaketaren aurkako Alkateen Itun Globala) abiarazi zuten. Harrezkero, mundu osoko ehunka hiri atxiki zaizkio Compact of Mayors ekimenari.

2015eko irailean, Nazio Batuen Erakundearen Batzar Nagusiak Garapen Jasangarriaren 17 Helburuak (GJH) onartu zituen. Horien artean dago hiriei eta hiri-eremuei dagokien 11. helburua. GJHek Milurtekoko Garapen Helburuen (MGH) logikari eta espirituari jarraitzen diete, eta Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako 2030erako Agenda berrira eramaten dituzte.

Helburu horiek aplikatzekoak dira NBEren kide diren estatu guztientzat, eta ikuspegi integratzailea hartzen dute beren gain nazioarteko garapenari eta gure planetan giza bizitza iraunarazteari buruz. GJHek gai berriak hartzen dituzte barnean, eta beren ikuspegi berriak sistema integratutzat hartzen ditu ingurumena, ekonomia eta gizartea, elkarren artean lehiatzen diren zutabe bereizitzat hartu beharrean, Produkzio Jasangarrian eta Kontsumo arloetan gertatzen den bezala.

2015eko abenduan, Parisen egindako Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen Esparru Konbentzioaren (KANBEK) Aldeen 21. Konferentzian (COP 21), klimari buruzko akordio global bat erdietsi zen berotze globala tenperaturaren 1,5 °C eta 2 °C arteko igoerara mugatzeko. Nazioarteko erreferentziako beste akordio batzuekin batera, gobernu-maila guztietan klimari buruzko ekintzak gauzatzeko nazioarteko esparrua hezurmamitzen du Parisko Klimari buruzko Akordioak.

Hiri eta Herri Jasangarrien Europako 8. Konferentziaren esparruan, Bilbaon 2016ko apirilaren 27an onartu zuten “Euskal Adierazpena. Bide Berriak Europako Hiri eta Herrientzat. Hiri produktibo, jasangarri eta erresilienteak sortuz, bizitzeko egokia den Europa inklusibo batentzat”. Euskal Adierazpenak Nazio Batuen GJHetan eta COP 21 konferentzian ezarritako esparru global berrien printzipioak biltzen ditu. Tokiko jasangarritasun-politiketarako erreferentzia-esparru berria da, eta ordezkatu egiten du Aalborgeko Gutuna.

Adierazpen horretan, Europako hiri eta herrietako alkate eta ordezkariak aitortzen dute gure gizarteek aldaketa teknologiko, sozioekonomiko eta soziokulturala behar dutela, gure biztanleriari bizi-kalitate egokia segurtatzeko; aldi berean, beharrezkoa da errespetatzea gure tokiko ekosistemen eta ekosistema globalen mugak, eta eskura dauden baliabide naturalak. Halaber, prest azaltzen dira nazio eta eskualdeetako gobernuak laguntzeko, eta baita Europar Batasunari ere, Nazio Batuen GJHak eta Parisko Klimari buruzko Akordioa inplementatzeko lanean, Europar Batasunaren Hiri Agenda beren helburuekin uztartzen laguntzeaz batera; eta orobat, Ekintza Eraldatzaileak tokiko mailan hasteko eta inplementatzeko, lehen aipatutako 15 bideetan.

2016ko maiatzaren 3an Eusko Jaurlaritzak adierazpen instituzionala egin zuen Parisko Akordioarekiko atxikipena eta konpromisoa azaltzeko, eta konpromisoa adierazi zuen beste herrialde eta eskualde batzuekin elkarlanean aritzeko nazioarteko lankidetzaren bitartez, adibidez, Garapen Jasangarriaren aldeko Eskualdeen Munduko Sarea (nrg4SD), Klima Aldaketaren Pirinioetako Behatokia (KAPB), The Climate Group (TCG) eta Jasangarritasunaren Aldeko Tokiko Gobernuen Sarea (ICLEI).

Euskal Adierazpenak Aalborgeko Gutunari txanda hartu dio hiri-garapen jasangarria bermatzeko printzipioak eta ekimenak definitzeko paradigma berri gisa. Hala berretsi dute berriki, Nazio Batuek antolatuta, Qiton (Ekuador) 2016ko urriaren 17tik 20ra egin den “Habitat III” nazioarteko konferentzian.

Administración Pública y Justicia

EL GOBIERNO ACTUALIZA LOS SERVICIOS Y ACTIVIDADES SUSCEPTIBLES DE SER RETRIBUIDOS MEDIANTE PRECIOS PÚBLICOS

- **La actualización se deriva de los nuevos servicios que prestan el Instituto Vasco de Educación a Distancia y el Instituto Vasco de Medicina Legal son los informes y dictámenes periciales realizados por los médicos forenses los que se remunerarán de esta manera.**

El Consejo de Gobierno ha aprobado hoy la modificación del *Decreto 397/2013, de 30 de julio, por el que se determinan los servicios y actividades susceptibles de ser retribuidos mediante precios públicos*. El cambio viene motivado por la necesidad de incluir nuevos servicios que a partir de ahora ofrecerán los departamentos de Educación, Política Lingüística y Cultura y de Administración Pública Justicia. Son servicios que ofrecerán el Instituto Vasco de Educación a Distancia y del Instituto Vasco de Medicina Legal.

SERVICIOS RETRIBUIDOS MEDIANTE PRECIOS PÚBLICOS

Tras la modificación del Decreto, el listado de los servicios y actividades susceptibles de ser retribuidas por precios públicos quedaría así:

Departamento de Educación, Política Lingüística y Cultura:

- ✓ Venta de material didáctico.
- ✓ Servicio de comedor.
- ✓ Servicio de residencia.
- ✓ Utilización de libros de texto y otros materiales curriculares.
- ✓ Servicios diversos a prestar en el Complejo Educativo de Eibar.
- ✓ Servicios de enseñanza de las Escuelas Oficiales de Idiomas, Conservatorios de Música y Danza, Escuelas de Artes Plásticas y Diseño, Escuelas de Artes Aplicadas y Oficios Artísticos, Escuelas de Artes Escénicas, Centros de Enseñanzas Deportivas e **Instituto Vasco de Educación a Distancia**.
- ✓ Derechos de examen.
- ✓ Servicios públicos de educación superior de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea conducentes a la obtención de títulos de carácter oficial.

Departamento de Administración Pública Justicia

- ✓ Venta de publicaciones, tanto en soporte papel como electrónico, y envío.
- ✓ **Informes y dictámenes periciales realizados por el Instituto Vasco de Medicina Legal**. Esto son, informes periciales a petición de las aseguradoras para valorar lesiones en accidentes de tráfico.

Hacienda y Finanzas

CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE LA UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO/EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA Y EL EUSKAL ESTATISTIKA ERAKUNDEA - INSTITUTO VASCO DE ESTADÍSTICA PARA LA DIRECCIÓN DE TRABAJOS FIN DE MÁSTER

El Consejo de Gobierno ha aprobado hoy un convenio de colaboración entre la UPV y Eustat para trabajos de fin de máster de los estudios de postgrado conducentes a las titulaciones de Máster Universitario por parte del alumnado matriculado en la UPV/EHU.

Existe un interés común entre la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea y el Euskal Estatistika Erakundea - Instituto Vasco de Estadística-Eustat en propiciar el desarrollo de la investigación conjunta a través de estructurar las relaciones de la UPV/EHU con Eustat, en lo que se refiere a la realización de trabajos fin de máster, mediante la coordinación de las actividades de investigación.

Eustat participa en los Másteres universitarios mediante la dirección de trabajos fin de máster, facilita el material necesario para el desarrollo adecuado de los trabajos fin de máster a desarrollar por parte del alumnado y facilita el acceso a la documentación que se requiera para el desarrollo del trabajo fin de máster, respetando las normas sobre confidencialidad y secreto estadístico.

Educación, Política Lingüística y Cultura

AYUDAS PARA LA ADQUISICIÓN DE EQUIPAMIENTO CIENTÍFICO

El Consejo de Gobierno ha aprobado, a propuesta de la consejera de Educación, Política Lingüística y Cultura, la Orden por la que se convocan ayudas para la adquisición de equipamiento científico durante el año 2017, destinadas a los agentes de la Red Vasca de Ciencia, Tecnología e Innovación, excepto la UPV/EHU. La convocatoria cuenta con un importe económico de 200.000 euros.

Entre los miembros integrantes de la citada red, se encuentran, y son por tanto beneficiarios de la convocatoria: Centros de Investigación Básica y de Excelencia; Centros, Departamentos, Secciones, Institutos u otras Unidades de Investigación de las universidades, excepto de la UPV/EHU. Centros de Investigación Cooperativa, Centros Tecnológicos, y Centros Sectoriales de Investigación.

Esta convocatoria persigue el objetivo de incrementar el potencial científico y tecnológico de Euskadi y de que los grupos de investigación participen con éxito y competencia en la construcción del espacio europeo de investigación.

El plazo de presentación de solicitudes será de un mes, a contar desde el día siguiente de la publicación de la Orden en el BOPV.

Medio Ambiente y Política Territorial

EL PAÍS VASCO SE SUMA AL ACUERDO CONTRA EL CAMBIO CLIMÁTICO QUE ENTRA EL JUEVES EN VIGOR

El **Acuerdo de París** sobre **Cambio Climático** entrará el jueves en vigor, días antes del inicio de la nueva cumbre climática de COP 22 que tendrá lugar en Marrakech, Marruecos, del 7 al 18 de noviembre, en la denominada “Conferencia de las Partes”, órgano que adopta las decisiones supremas de la Convención Marco de las Naciones Unidas sobre Cambio Climático. El Gobierno Vasco, al igual que otros ejecutivos de toda Europa, se ha sumado a la iniciativa internacional para evitar que la temperatura del planeta se eleve más de dos grados centígrados en los próximos años.

Bajo el paraguas del Acuerdo de París, todos los países han acordado combatir el cambio climático y desplegar actuaciones e inversiones para lograr un **futuro sostenible, resiliente y bajo en carbono** que mantenga el incremento medio global de la temperatura por debajo de los 2° C, con una voluntad internacional de trabajar de forma conjunta por limitarlo a menos de 1,5 °C.

“El Gobierno Vasco ha mostrado su satisfacción por la aprobación de este acuerdo internacional cuando fue ratificado por la Unión Europea el pasado 5 de octubre fecha en que fue aprobado por el Parlamento Europeo. Ha sido necesario menos de un año para completar este proceso lo que pone de manifiesto el apoyo que ha recibido este acuerdo a nivel global en una cumbre en la que, junto a otros gobiernos de países y estados de todo Europa y del mundo, participó Euskadi con el Lehendakari Iñigo Urkullu al frente”, ha recordado **Ana Oregi**, consejera de Medio Ambiente y Política Territorial.

Estrategia KLIMA 2050

De acuerdo con el informe del Observatorio de la Sostenibilidad, el País Vasco ocupa el cuarto puesto respecto a las emisiones generadas por unidad de PIB, lo que significa que es una de las economías más descarbonatadas del estado.

Siguiendo la dirección de los compromisos expresados por la Unión Europea en materia de cambio climático, el Gobierno Vasco aprobó a finales de 2015 la **Estrategia KLIMA 2050** para hacer frente a este reto ambiental en la que se fija como objetivo reducir para el año 2030 del 40% de las emisiones de Gases de Efecto Invernadero respecto a lo que fue 2005, y un 80% para el año 2050.

El Gobierno Vasco participa activamente en distintos **foros europeos e internacionales** relacionados con el medio ambiente, la educación para la sostenibilidad, el transporte sostenible, el cambio climático, el hábitat y la ordenación territorial. Por el momento más de mil cien ayuntamientos, regiones y organizaciones han suscrito la denominada “Declaración Vasca” promovida por Iclei-organización de ciudades y regiones para la sostenibilidad suscrita este año en Bilbao y que ha tomado el relevo a la denominada carta de Aalborg.

Medio Ambiente y Política Territorial

EL CONSEJO DE GOBIERNO SE ADHIERE A LA “DECLARACIÓN VASCA”, HOJA DE RUTA PARA CIUDADES Y PUEBLOS CREANDO MUNICIPIOS PRODUCTIVOS, SOSTENIBLES Y RESILIENTES PARA UNA EUROPA HABITABLE E INCLUSIVA

El Consejo de Gobierno Vasco, se ha adherido de forma oficial a la “Declaración Vasca”, nueva hoja de ruta para ciudades y pueblos europeos promovida por Iclei-Organización de ciudades y regiones para la sostenibilidad, que define la creación de “municipios productivos, sostenibles y resilientes para una Europa habitable e inclusiva”

El pasado 3 de mayo de 2016 el Gobierno Vasco realizó una declaración institucional de adhesión y compromiso con el Acuerdo sobre el Clima alcanzado en París y expresó su compromiso de colaboración con otros países y regiones, tomando parte en redes de cooperación internacional, como la Red de Regiones por el Desarrollo Sostenible (nrg4SD), el Observatorio Pirenaico de Cambio Climático (OPCC), The Climate Group (TCG) y la Red de Gobiernos Locales por la Sostenibilidad (ICLEI).

El relevo de la denominada Declaración Vasca, acuerdo suscrito en Bilbao por casi mil ciudades regiones y organizaciones, a la Carta de Aalborg como nuevo paradigma en la definición de principios e iniciativas para garantizar un desarrollo urbano sostenible ha sido ratificado recientemente en la Conferencia internacional “Habitat III” organizada por Naciones Unidas en Quito, Ecuador, del 17 al 20 de octubre de 2016.

En las últimas décadas, la referencia para la definición de las políticas de sostenibilidad de los gobiernos locales y regionales fue la Carta de las Ciudades Europeas hacia la Sostenibilidad, aprobada y ratificada por más de 600 participantes en la Conferencia Europea sobre Ciudades Sostenibles celebrada en Aalborg, Dinamarca, el 27 de mayo de 1994.

Ese documento, conocido como Carta de Aalborg, fue actualizado una década más tarde en una nueva edición de la Conferencia mencionada, Aalborg +10. Las ciudades y unidades territoriales firmantes se comprometieron a impulsar las iniciativas locales de la Agenda 21 de las Naciones Unidas y a desarrollar programas para un desarrollo sostenible de las ciudades y regiones europeas.

Durante la Cumbre sobre el Clima de las Naciones Unidas de septiembre de 2014, el Secretario General de las Naciones Unidas y su Enviado Especial para Ciudades y Cambio Climático lanzaron el Global Compact of Mayors (Pacto Global de Alcaldes y Alcaldesas contra el cambio climático). Cientos de ciudades de todo el mundo se han sumado al Compact of Mayors desde entonces.

En septiembre de 2015, la Asamblea General de las Naciones Unidas aprobó los 17 Objetivos de Desarrollo Sostenible (ODS), entre los cuales se encuentra el objetivo 11 que hace referencia a ciudades y áreas urbanas. Los ODS siguen la lógica y el espíritu de los Objetivos de Desarrollo del Milenio (ODM), y los trasladan a la nueva Agenda 2030 para el Desarrollo Sostenible.

Estos objetivos son de aplicación para todos los estados miembros de la ONU y asumen una perspectiva integradora sobre desarrollo internacional y sustento de la vida humana en nuestro planeta. Los ODS incluyen nuevas temáticas y un enfoque que presenta el medio ambiente, la economía y la sociedad como sistemas integrados en lugar de pilares separados y en competencia, como por ejemplo el Consumo y la Producción Sostenible.

En diciembre de 2015 y con motivo de la 21ª Conferencia de las Partes (COP 21) de la Convención Marco de Naciones Unidas sobre Cambio Climático (CMNUCC) celebrada en París, se alcanzó un acuerdo global sobre el clima para limitar el calentamiento global a un incremento de la temperatura entre 1,5° y 2°C. Junto con otros acuerdos de referencia internacionales, el Acuerdo sobre el Clima de París da forma al marco internacional para las acciones sobre el clima en todos los niveles de gobierno.

En el marco de la 8ª Conferencia Europea de Ciudades y Pueblos Sostenibles se aprobó en Bilbao, el 27 de abril de 2016, la denominada “Declaración Vasca. Nueva hoja de ruta para ciudades y pueblos europeos creando municipios productivos, sostenibles y resilientes para una Europa habitable e inclusiva”. La Declaración Vasca recoge los principios de los nuevos marcos globales establecidos en los ODS de las Naciones Unidas y en la COP 21, y se convierte en el nuevo marco de referencia para las políticas locales de sostenibilidad, sustituyendo la Carta de Aalborg.

En la citada declaración los alcaldes y alcaldesas de ciudades y pueblos europeos reconocen la necesidad de una transformación tecnológica, socioeconómica y sociocultural de nuestras sociedades con el ánimo de asegurar una calidad de vida digna para nuestra población al tiempo que se respeten los límites de nuestros ecosistemas locales y globales, y los recursos naturales disponibles. Asimismo, declaran su disposición a apoyar a los gobiernos nacionales y regionales y la Unión Europea a la hora de implementar los Objetivos de Desarrollo Sostenible de la ONU y el Acuerdo sobre el Clima de París y de alinear la Agenda Urbana de la UE con sus objetivos y a iniciar e implementar las acciones de transformación localmente a lo largo de las 15 pautas de la nueva hoja de ruta.

El 3 de mayo de 2016 el Gobierno Vasco realizó una declaración institucional de adhesión y compromiso con el Acuerdo de París y expresó su compromiso de colaboración con otros países y regiones, tomando parte en redes de cooperación internacional, como la Red de Regiones por el Desarrollo Sostenible (nrg4SD), el Observatorio Pirenaico de Cambio Climático (OPCC),

The Climate Group (TCG) y la Red de Gobiernos Locales por la Sostenibilidad (ICLEI).

El relevo de la Declaración Vasca a la Carta de Aalborg como nuevo paradigma en la definición de principios e iniciativas para garantizar un desarrollo urbano sostenible ha sido ratificado recientemente en la Conferencia internacional “Habitat III” organizada por Naciones Unidas en Quito, Ecuador, del 17 al 20 de octubre de 2016.